



Grezia, mende erdia monarkiarik gabe



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Grezia, 1975. Herrialdeak urtea errepublika gisa hasi zuen, hiru aste lehenago, 1974ko abenduaren 8ko erreferendumean, herritarrek monarkiaren amaiera erabaki ondoren.

Hamarkada bat lehenago, 1964an, Pablo I.a erregea hil zenean, Konstantino semeak hartu zuen tronua, 23 urte zituela.

Baina Grezia politikoki oso zatituta zegoen ordurako, eta errege gazteak ez zuen egoera hobetzeko pausorik eman. Alderantziz, lehen ministroarekiko harremanak okerrera egitea eragin zuen, eta, gainera, gobernu berria izendatzen ahalegindu zen hauteskundeak deitu gabe.

Krisi giro horretan, 1967an ejertzitoko ofizial batzuek estatu kolpea jo zuten eta, hala, Koronelen Diktadura bortitza abiatu zen. Hasieran Konstantinok, itxuraz behintzat, bat egin zuen buruzagi berriekin, baina berehala konplot bat prestatzen hasi zen koronelek ematen ez zioten boterea berreskuratzeko. Porrot egin zuen ahaleginean eta Italiara ihesi egin behar izan zuen.

1974an Koronelen Diktadura erori zenean, berriro ere Konstantinok koroa jantziko zuela zirudien. Hauteskundeak egin arte boterea hartu zuen behin behineko gobernu zibilak erregimen militarren konstituzioa baztertu, eta 1952koa berrezarri zuen; konstituzio horren arabera Grezia monarkia konstituzionala zen.

Baina hauteskundeen ondoren, Konstantinos Karamanlis lehen ministro hau-



Monarkiaren aurkako kartela, Greziako 1974ko erreferendumaren kanpainan.

tatu berriak monarkiaren etorkizuna erabakitzeko erreferenduma deitu zuen. Karamanlis alderdi kontserbadore monarkikoaren burua zen, eta ziur zegoen herritarrek monarkiaren alde egingo zutela. Erregea ere baikorra zen, 1973an BBCK elkarrizketa batean esan zituenak kontuan hartuta: "Baliteke erregeak er-

bestean bizi behar izatea, baina inork ezin ditu kargutik kendu. Erregea beti da errege. Erabat ziur nago nire herriak bere burua libreki adierazteko aukera duenean, gehiago nabarmenak ni itzultzea nahiko duela". Abenduaren 8ko erreferendumean herritarren %69,11k ez itzultzeko esan zion. ●



INDONESIAKO MUSEO NAZIONALA

Herbehereetatik etxera

2017an Indonesiak eta Herbehereek akordio bat sinatu zuten, Europako herrialdeak hiru mendeko kolonialismoaren ondorioz lapurtutako ondarea itzultzeko helburuarekin. Gusti Agung Wesaka Puja itzultze prozesuaren arduradun indonesiarraren hitzetan, akordio hori garrantzitsua izan zen "nazioarteko komunitateari erakusteko Indonesiak objek-

tu horiek berreskuratzeko gaitasuna daukela". 2024aren amaieran prozesuaren balantzea egin dute eta, guztira, dagoeneko, 828 objektu itzuli dituztela jakinarazi dute, besteak beste, irudian ikusten den Prajnaparamitaren estatua. Baina Asia hego ekialdeko ondarea itzultzeko bidean oraindik hamarkada askoko lana dagoela jakinarazi dute adituek. ●